

## TRADIZIOAK



24.1.- Talde txikian, erantzun hiru galdera hauei:

- Zein da Trebiñu II-koek duten arazo larria?
- Nola gogoratzen dituzte ikastolen alde egiten ziren gaztaroko festak?
- Nolakoak iruditzen zaizkie festa horietako kantuak?

24.2.- Festak tradizioz ospatzen ditugu; eta tradizioari eutsiz, pixkanaka garai berrietara egokitzen ditugu. Kontatu talde txikian:

- Aipatu, garai berrietara egokituz, aldatu den ospakizunen bat: *Lekeitioko antzarra, Donostiako danborrada...*

Adibidez: lehen nire herrian antzarrak bizirik zintzilikatzen ziren antzarren festa ospatzeko. Gaur egun, ordea, plastikozkoak jartzen dituzte.

- Kontatu zure herrian tradizioz egiten den zerbaitekin, eta gero talde handian zerrendatu.



# TREBIÑU II



Laija lasterketa Artajonan




Bilboko tortilla txapelketa



Goitibehera txapelketa Gaztelun



Barraskilo-jatea Gasteizen



Antzarrak Lekeition

## 24. atala: Taldean

## 24.3.- Taldeka, hautatu herri bat eta osatu egun bateko festa-programazioa:

1. Erabili, besteren artean, aurreko jarduerako zerrendan atera diren ekintzak.
2. Erabaki dirua nola lortu: txosnak, kamisetak, zozketak, azokak, auzoetako ekitaldiak...
3. Adostu programa. Kontuan hartu: adina, eguraldia, mugikortasuna...
4. Ondoren, bozkatu guztion artean egitaraurik erakargarriena.

## IRAKASLEARENTZAKO OHARRA:

- Azken jarduera egiteko komeni da guztiok herri bera hautatzea, bozketa errazteko.
- Programa adostean hainbat gauza hartu behar dituzte ikasleek kontuan: herriaren tamaina, eguraldia, ekintza bakoitzak sortuko dituen gorabeherak herrian, adin-tarte guztiak kontuan hartzea, eta abar.
- Talde bakoitzean guztion parte hartzea eta eztabaida bultzatuko da, adostasunera iristeko.



24. atala: Taldean

## Transkripzioa (03:05)

T- Iurreta, Iurreta... hemen Trebiñu II Iurretara deika.

E- Zer gertatzen da orain, Sarasola?

T- Ez zaitez nirekin haserretu!

E- Nola dakizu haserretu naizela?

T- Tasio hots egin beharrean Sarasola esaten didazunean, malo!

E- Zer gertatzen da... Tasio?

T- Bada, Hal-ione-rekin arazo larria izaten jarraitzen dugula.

E- Data kontuagatik diozu?

T- Bada, bai. Entzun, Johnson, zer jartzen dik Hal-ioneren pantailan?

K- Nafarroa Oinez arrakastatsua Viana-Lodosan.

E- Bueno, zuri, adinagatik, ez zaizu arrotza egingo.

T- Nafarroa-Oinez hartan gurasoekin egon nintzela uste dut, baina oso txikia nintzen eta, egia esan, ez naiz ongi akordutzen, e?.

E- Garai hartan ibilbide moduko bat omen zegoen eta oinez egiten zela uste dut.

T- Bai, bai, hala da, bai.

K- Ni joaten nintzenean ibilbidea tabernaz taberna eta txosnaz txosna egiten genuen.

E- Nik gaztaroan parranda batzuk ere egin nituen halakoetan.

K- E! Oroitzen duzue leloa? Na-farra Oinez! Na-farra Oinez!

E- Eta nola zen beste hura I-birra-ldia! I-birra-ldia!

E- Nire faborittoa...Kilolitroak! Kilolitroak!

K- Bai, eta ardua euskaraz! Joe, baina, nik, egia esan, gehien oroitzen ditudanak bi egun irauten zuten bestondoak ziren.

E- Buf... bai eta trenean etxera buelta luze eta amaitezinak.

T- Ez nuen hau espero zuregandik, Eskisabel kapitaina.

E- Bada, ez dakit zergatik diozun hori. Hainbeste gustatzen zaizun euskal tradizio batez ari gara.

E- Zure seme-alabak ez al dira joaten?

T- Bai, horrexegatik diot, lotsagarria da. Jai etilikoa besterik ez da haientzat.

K- Baina beti izan dira uda osteko jaiak, ez?

E- Garai batean ez omen zen, baina niri ez galdetu, nik ez nuelako garai hura ezagutu.

T- Ikastolen eta euskararen aldeko festa eta aldarrikapena zen.

E- Bueno, eta baita dirua biltzeko modua ere.

K- A, bai? Dirua bildu? Eta nola egiten zuten? Ni ez nintzen sekula enteratu.

E- Bada, txosnetan erosten genuen alkoholarekin, adibidez.

K- Ikastolak alkohol-salmentarekin eraikitzen zirela?

T- Ea, aber, hori esatea gehiegi esatea duk, e?

E- Crowdfunding-a esatea nahiago baduzu, txosna-crowdfunding-a esango diogu.

K- Jo, gauza bat ez dut sekula ulertu.

T- Zer, alegia?

K- Urtero urtero festa hauetarako egiten dituzten kantuak zergatik dirudite beti kanta berdina.

T- Ez diat uste hala denik.

E- Tasio, niri ere amorrua ematen dit onartzeak, baina Jhonsonek arrazoia duenean, arrazoia du.

## Erantzunak

### 24.1.-

- Hal-ioneek aspaldiko kontuei buruzko informazioa ematen duela. Kasu honetan Viana-Lodosan egindako Nafarroa Oinez berri ematen du.
- Gaztaroan horrelako festetara joaten zirenean tabernaz taberna eta txosnaz txosna ibiltzen zirela zurrutean. Horretara joaten zirela eta alkohol-salmentatik ateratzen zela dirua.
- Kantuak festa guztietan berdinak iruditzen zitzaizkien bai Kevini, bai Eskisabel kapitainari.